

*Aita semeak*  
Tinta sobre papel. 45,5 x 24,7 cm


*Marrazki hauen arima*  
*zuretzat, Lorena*

Erramun.

120 marrazki mutu

Sarrera

Bilboko trenbide ondoan, pisu sorgindu batean bizi izan ginen Erramun eta biok, 1986-87 aldera. Gauez irudiak egiten zituen berak paperean, istorioak idatzi nik konputagailuan; eta Picaso katua begirale, loti. Maiz, bizitza, sorkuntza eta Euskal Herria genituen hizpide. Lagun egin ginen, lagun jarraitzen dugu.




*Anaitasuna*  
Tinta sobre papel. 22 x 44 cm

### Metodoa

1990. urtean, Oskorri taldearen 111 kanturen libururako ilustrazioak egiten jardun zen, bihotz, buru eta arima. Lau hilabeteko lan honetan, putzu"zulo" sakona zafatu zuen Erramunek, kantu horien oinarri ziren hitz-poemen eremuetan. Azkenean, Abandoko geltokitik Espainia aldera abiatutako 120 tren bere etxe paretik beste horrenbeste gautan igaro zirenean amaitu zuen Oskorri egindako mandatua. Egunargiz egiten zuen lo, eguzkiak eragindako ametsak ilargiarenak baino indartsuagoak izaten baitira.

Lau hilabete bete haietan Erramunek ez zuen beste grinarik. Arte Ederretako Fakultatera ere ez zen joaten (irakasleak ere seguruenik ez ziren bere ausentziaz ohartuko), eta metropoli-txiki soilik izatera heltzen den Bilbo irudimenerako iturri zitzaion.



*Bertolt Brechten gorazarrez*  
Tinta sobre papel. 19 x 40 cm

### Ebaluaketa

Erramunek esan dit bere ilustrazio lanik onena dela, aurreko guztien ondorio modura sortutakoa. Ez nago seguru horretaz, beste hainbat ilustrazio eta irudi horiek bezain esanguratsuak baitira niretzat. Edonola ere, koska nabarmen bat dago: besteak ez bezala, 120 marrazki hauek ez dira argitaratuak izan.

Nire ustez, bi esku, bi pultsio, bi sentipen, bi Erramun daude ilustrazio-sorta honetan. Lehen aroa, meheago eta jostariagoa, *Preso gaudenon ahoetatik* marrazkian amaitzen da; bigarrena, sendoago eta ilun/sakonagoa *Forjarien kanta* deitutakoarekin hasten da. Orain atzera begiratu, auzi bati preso egotera zihon aurreikuspena lirudikete.

### Auzia

120 irudi hauek "Oskori, 111 kantu" liburu-proiekturako ziren, Oskori taldearen mandatuz. Gaurko Euskal Herrian maizegi den modura, hitzarmena ahoz izan zen, ez paperez. Marrazkiak amaitzean, inprentakoekin testu eta irudiak uztartzeko oharrak prestatzen ari zirenean, auzia sortu zen: marrazkien orjinalen jabetza. Oskori taldekoek zioten, beren liburua zenez, marrazkien originalek ere berenak izan behar zutela; Erramunek argudiatu zuen, liburuan erreproduzitzeko eskubidea bakarrik eman ziela, eta ez orjinalen jabetza. Oskorrik erabaki zuen lan hauek ez erabili eta beste bati enkargatzea. Erramunek, horrelako ahaleginaren ondorioz egindako ilustrazioak baztertuta geratzen zirela ikustean, epaitegira jo zuen. Epaiketa izan zen, eta epaia. Gehiago jakin nahi duenak galde bieziaie.

### Interpretazioa

Egia da, bai, maldizio betikoa dela kexa eta promesa<sup>ren</sup> anaitasuna, kontrapas dantzaren erara elkartzen direla, zazpi jauziak desegin ez eta agur aunik gabe amaituz. Erramun Landari, furra furra, antzekoa gertatu zitzaion Bertolt Brechten gorazarrez egindako ilustrazioetan, amoros sekretuki dena<sup>ri</sup> mila keinu eginez.

Preso gaudenon ahoetatik esaten dugu maite dugu<sup>la</sup> mundua, mundu interesatu hau, biolin musika azpitik eta zeru ertzetik etorrituz entzuten dugunean. Forjarien kanta da isildu behar ez duguna. Inork agintzen ez didalako diot hau ezpatadantza ez baita eskaintza

Iñaki Zabaleta Urkiola  
Idazle eta irakaslea  
Bilbo, 1999ko urriaren 23an